

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2019ko URTARRILAREN 31an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2019ko urtarrilaren 31an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Felix Joaquin Asensio Robles
 Angel Serrano Martinez
 Aritz Sarria Saraqueta
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2018ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 20 de diciembre de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Tolosako Hiltegi Mankomunatuari 2018ko bigarren zatiari dagokion ekarpena burutzea, hala bada/ Aprobación de la aportación económica a Tolosako Hiltegi Mankomunatua correspondiente al segundo pago del ejercicio 2018.**
- 4. Larraulgo liburutegia eta herriaren dinamizazioa bultzatzeko lanpostuaren programa dela eta, izendatutako bitarteko funtzionarioaren erabakiaren berrespena, hala bada / Ratificación del nombramiento de funcionaria interina, del puesto de dinamizadora de la biblioteca y del municipio, en el marco de funcionario por programa .**
- 5. 2019 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea, hala bada./ Aprobación inicial del expediente del presupuesto general del Ayuntamiento para el ejercicio 2019.**
- 6. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2019ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada./Aportación económica correspondiente al 1. y 2. Trimestre del 2019 a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea.**
- 7. 2018-2019 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen ebazpena, hala badagokio./ Aprobación de las**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2018/2019.

8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2018 urteko abenduaren 20an Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

- ▣ **BIGARREN PUNTUA**

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

26/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 17koa, non Larraulgo liburutegia eta herriaren dinamizazioa bultzatzeko lanpostuaren programa onartzea, ebazten duena.

01/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 18koa, non Larraulgo liburutegia eta herriaren dinamizazioa bultzatzeko lanpostuaren programa dela eta, R.T. A. bitarteko funtzionarioa izendatzea, ebazten duena.

02/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 18koa, N.U. andreari urtarrilaren 21etik 25era lan kontratua egitea, ebazten duena.

03/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 29koa, 2018ko 4. Hiruhilabeteari dagozkion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.


Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2018KO BIGARREN ZATIARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateko plenoak, 2019ko urtarrilaren 10ean, kideak diren Udalek egin beharreko ekarpenak onartu zituela, erakundearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa, lege aholkularitza eta horrek sortzen duen lan administratiboa ordaintzeko, alegia, 2018ko aurrekontuaren 2. Zatiko ekarpena burutu dezagun eskaera giten du. Larraulen kasuan, 47,00 euro izanik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2018 urteari dagokion 2. zatiaren ekarpena onestea eta burutzea, 47,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2018ko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 47,00 euroko gastua onestea.

LAUGARREN PUNTUA

**LARRAULGO LIBURUTEGIA ETA HERRIAREN DINAMIZAZIOA
BULTZATZEKO LANPOSTUAREN PROGRAMA DELA ETA,
IZENDATUTAKO BITARTEKO FUNTZIONARIO ERABAKIAREN
BERRESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2018ko abenduaren 17ko 26/2018 Alkatetza ebazpenez, Larraulgo Liburutegia eta herriaren dinamizazioa lanpostua hornitzeko dagokion Programa onartu zela.

Ikusirik 2019ko urtarrilaren 18ko 01/2019 Alkatetza ebazpenez, Larraulgo liburutegia eta herriaren dinamizazioa bultzatzeko lanpostuaren programa dela eta, R.T. A. bitarteko funtzionarioa izendatzea onestu zela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: 2019ko urtarrilaren 18ko 01/2019 Alkatetza ebazpena berrestea, ondorioz, Larraulgo liburutegia eta herriaren dinamizazioa bultzatzeko lanpostuaren programa dela eta, R.T. A. bitarteko funtzionarioa izendatzea onesten da.

BOSTGARREN PUNTUA

**2019 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN
ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2019 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2019ko urtarrilaren 28ean egindako txostenean dioena.

Gaia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:


- Aldeko botoak: Urbietta, Pizarro, Jauregi, Leon, Sarria eta Serrano Alkate/zinegotziak.
- Kontrako botoak: Ez daude.
- Abstentzioak: Asensio zinegotzia.

Bozketaren emaitza ikusirik, bertaratuek gehiengoz, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2019 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea **345.384,00** eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

SARRERAK	345.384,00€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	47.010,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	2.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	40.210,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	247.064,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	3.000,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	6.100,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GASTUAK	345.384,00€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	117.310,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	130.300,00
3. Kap. Finantza gastuak	50,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	51.868,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	33.626,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	8.200,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	4.030,00

BIGARRENA.- 2019ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko irizitako errekurtso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.


SEIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2019KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2019ko urtarrilaren 22an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2019 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 14.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2019 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2019 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2019 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

-Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro

-Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 14.500,00 eurotako gastua onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2018-2019 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2018-2019 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2018-2019 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epea, otsailaren 1etik 28ra zabalduko da (biak barne).


HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

UR AGENTZIA	9,84
-------------	------




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

UR AGENTZIA	21,66
BERRI LANTEGIA	96,10
CORREOS	1,95
ZU ETA BIOK	553,20
BULEGOAK	82,95
FERRETERIA BARBE	48,40
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	134,31
GAZTEZULO	22,00
IZFE	2.052,44
IÑAKI ESNAL	100,00
EBA ERKIZIA	616,36
BULEGOAK	634,04
KIROLZER	49,40
ULAHI	398,50
NORA URBIZU	10,05
UR KONTSORTZIOA	5.203,04
IÑAKI ESNAL	100,00
IÑAKI ESNAL	100,00
IÑAKI ESNAL	40,00
TOLOMENDI	155,55
ZU ETA BIOK	683,10
OSCAR GALINDO	363,00
BABESA SUZAI	180,59
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	797,82
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	795,57
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	827,73
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	817,08
NORTEGAS	123,09
NORTEGAS	350,46
NORTEGAS	313,72
IBERDROLA	118,24
IBERDROLA	58,59
IBERDROLA	148,43
IBERDROLA	25,72
IBERDROLA	213,77
MOVISTAR	115,27
MOVISTAR	184,98
MOVISTAR	115,27
MOVISTAR	182,91

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **16.845,13** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA